



## Tolosaldeak izan du bere lekua FITUR azokan

**KOKAPENA** ▶ Erkidegoak duen 'Gipuzkoa Zein Berdea' atalean dago Tolosaldea Tour-en stand-a

**ERAKUSTOKI** ▶ Munduko bigarren azokarik handienean, barnealdeko turismoa ari dira bultzatzen ▶ 2

**IRURA** ▶

Estilo anitzeko kontzertua Trinketean

23:00etatik aurrera izango da, gaur ▶ 4

N. GARZIA



## Ikasleek, mozorroak soinean, ongietorria egin diete inauteriei

**ARESO** ▶ Atzo arratsaldean herrian kalejira egin zuten gaztetxoek, eta ondoren jolasak eta txokolatada ere izan zituzten ▶ 7

**TOLOSALDEA** ▶

## Gaur hasiko du TAKEk Gipuzkoako Batelen Ligaxka

Trintxerpen lehiatuko dira gaur, eta bihar Pasai San Pedron ▶ 3



TAKekoak Orian. N. LIZARTZA

**ALEGIA** ▶

## Eneko Elolaren eta Aritz Lopezen aldeko festa gaur, Gaztetxean

Azaroan atxilotu zituzten gazteen fidantzak ordaintzen laguntzeko ▶ 5

**ALEGIA** ▶

## Bularreko minbiziaren prebentzioaz hitzaldia

Asteazkenean, Kultur Etxean ▶ 5

## Gaur 1. kupoia berriarekin



Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

TURISMOA ▶

# FITUR eta euskal izozmendia

Munduko bigarren turismo azokarik handienean jende uholdea dabil egunotan, lanean edo ikusmiran; Tolosaldea Tourrek ere izan du parte-hartzea bertan



Munduko bigarren turismo azoka FITUR-en (Madril, Espainia) Gipuzkoak duen erakusmahai. XABI AIZPURUA



Ezker-eskuin: Gomez Elosegi, Pep Palau, Urdangarin Tolosaldea Tour-eko erakusmahai. HITZA

## XABI AIZPURUA - MADRIL

**F**ITUR munduaren erakusle-  
leihoa da; hobeto esanda,  
munduko turismoarena.  
FITUR-en, turismoaren alde  
onak soilik agerian. Turismo  
arlotako industria eta enpresek  
bultzatutako azoka da egunotan  
Madrilen (Espainia) egiten  
ari direna, eta beraien ikuspe-  
gia erakusten dute herri bakoit-  
zeko errealitatea. Argazki  
ikusgarriak, errepiderik gabeko  
naturaguneak, hotel ederrak  
eta bainuetxe lasaiak. Erakun-  
de publikoak ere bete-betean

sartuta daude turismoa sus-  
pertzeko gurpilean, «ekonomia  
eta hirugarren sektorea indar-  
tzeko tresna» delako. Horrega-  
tik, erakundeetako ordezkari-  
tza zabala dago azokan. Profe-  
sionalei zuzenduta dago azoka  
lehen egun hauetan eta milaka  
langile dabil pabilioietan hara  
eta hona. Madrilgo hotel guz-  
tiak leporaino beteta daude,  
eta dauden logela bakanak  
200 eurotik gora balio dute.  
Mundu bat mugitzen du FITUR-  
ek, baina, Euskal Herriak zer  
toki ote du mundu horretan?

FITUR-en, pabilioi bakoitie-

tan Espainiako Estatu-  
ko autonomia erkidegoetako postuak  
daude jarrita. Bikoitietan, gai-  
nerako guztiak: Europako he-  
rrialdeak, Asiakoak, Amerika-  
koak... Euskal Herri-  
tik joandako ordezkari-  
tza publikoak, beraz,  
pabilioi bakoitietan  
dago, autonomia erkidegoen  
atalean. Hala nola, «Euskadi»-  
ko postua. Baina «Euskadi,  
atsegin handiz», ez da Euskal  
Herria. Andoni Aizpuruk eus-  
karazko telebista publikoan  
erakusten duen eguraldi mapa  
murriztuta aurkezten diote FI-  
TUR-en publikoari. Araba, Biz-

kaia eta Gipuzkoa soilik ageri  
dira. Nafarroak beste postu bat  
du. Lapurdi, Nafarroa Behere-  
ak eta Zuberoak ez dute berez-  
ko ordezkariarik.

## Tolosaldea Tour ere azokan

Tolosaldea Tour-ek, gure es-  
kualdeko turismoa bultzatzea  
helburu duen agentziak, 27.  
edizioa ospatzen ari den FITUR  
azokan ere izan du ordezkari-  
tzarik. Bertan, Tolosaldea Tour-  
ek, barnealdeko turismoareki-  
ko apustua egiten du eta turis-  
moarekin zer ikusia duten  
baliabide nahiz sektore ezber-  
dinak sustatzen ditu.

Gure eskualdea, hain zuzen,  
Euskadik duen stand-ean *Gi-  
puzkoa Zein Berdea* atalaren  
barne dago eta feriarren edizio  
berri honetara gerturatu diren  
170 herrialdeen artean ordezkari-  
katua egongo da.

Azken urte hauetan turismo  
arlotan, sektore ekonomiko gar-  
rantsutsua dela jabeturik, ur-  
tean zehar leku desberdinetan  
antolatzen diren azoketan parte  
hartzea erabaki du. Tolosal-  
dea Tour-ek Bilbon, Bartzelona-  
n (Herrialde Katalanak) eta  
Espainiako estatuan —Valla-  
dolid, Zaragoza, eta abarretan—  
antolatzen diren azoke-  
tan parte hartzen du, baita kanpo-  
ko beste herrietan  
antolatzen diren batzuetan ere,  
horien artean Paris eta London  
ditugularik. Azoketan presen-  
tzia edukitzea «ezinbestekoa  
da» agentziako arduradunen  
esanetan, eta Tolosaldeko turis-  
mo bulegoak era honetako  
promozioak egiten jarraitzeko

asmoa duela baieztatu dute,  
urtetik urtera gure eskualdera  
gerturatu diren bisitari eta  
turista kopurua nabarmen hazi  
baita azken urte hauetan.

Tolosaldea Tour-ek Eskual-  
deko gida berria banatuko du  
Euskadiko standera gerturatu-  
ren diren bisitari guztien artean  
Tolosaldeko informaziorik  
osatua zabalduz. Bertan  
gastronomia eta eskualdeko  
bertako produktuak, espezialita-  
teak adierazten dituen jate-  
txeen zerrenda, iradokizunak  
barne, eskualdeko sagardote-  
giak, ostatu, nekazalturismo,  
hotel eta aterpetxeei buruzko  
informaziorik zehatzena, sei-  
naleztatuak izan diren 39 ibil-  
bideen laburpena, Donejakue  
Bidea eskualdean zehar, Tolo-  
saldea osatzen duten 28 he-  
rrien azalpena, bertako festak  
eta tradizioak, kultura, arte zi-  
bila, erlijiosoa nahiz garaiki-  
dea, interesa sortzen duten bi-  
sita desberdinak, museo guz-  
tiak, artisauen erlazioa,  
merkatal ibilbideak, etnogra-  
fia, intereseko datuak, asteroko  
merkatu nahiz azoka bereziak  
etabar luze bat biltzen dituela-  
rik.

«Oraingoan gainera bidaia-  
antolatzaile katalanekin harre-  
manak egiteko aukera aprobex-  
tatu eta mota desberdinetako  
esperientziak partekatu eta  
trukatu ditugu, batetik Tolosal-  
dea gure mugetatik kanpo eza-  
gutza emateko eta bestetik,  
gure eskualdeko gastronomi-  
ak eskaintzen dituen kalitatez-  
ko produktu bikainak ezagutu-  
razteko aprobexatu dugu»,  
adierazi dute Tolosaldea Tour-  
eko ordezkariak.

## Zuria eta itxia

Euskadiko postuak itxura ber-  
ria du aurtan. FITUR-en aur-  
kezten den kolore eta informa-  
zio eztabairaren artean, Euska-  
dik izozmendi edo *icerberg* bat  
dirudi. Postua altua eta zuri-  
zuria da. Sinplea eta argazki  
gutzirekin hornitua, diseinuaren  
azken joerak jarraituz. EAEko  
herrialde bakoitzak eskuo-  
rriak banatzeko postu bana du,  
eta hiru hiriburuak laugarren  
batean daude elkarrekin. Izo-  
mendi zurira ezin du sartu Fi-  
turrera doan ikusle arruntak,  
bertako norbaitekin harreman-  
ik ez baldin badauka. Ez ta-  
bernara, ez bilera geletara. Ho-  
tza ere suerta daiteke. Eta era-  
kargarria. Izan ere, izozmendi  
guztien moduan, erakutsitakoa  
baino askoz ere gehiago ezku-  
tatzeko baitu. Euskadiko pos-  
tuan dauden teknikariek esan-  
dakoaren arabera, «Euskadi»  
marka indartzea da helburua.  
Turistak erakarri, eta behin  
bertan daudela, orduan ezagu-  
tarazi eskaintza zabalagoa,  
ezagutzen ez duena.

ERLIJIOA ▶

**Kristau bokazioari buruz hitzaldiak**

Elizbarrutiko bokazio-pastoraltzak hitzaldiak antolatuta ditu hilaren 7an, 8an eta 9an, Tolosan. Lehenengo hitzaldia *Jatorrizko deia* izango da, bigarrena, *Kristoren erara erantzun* eta hirugarrena, *Kristau-apaizgoa*. Hitzaldiak 16:00etan izango dira Santa Mariako Parrokiko areto nagusian.

ELKARTASUNA ▶

**7.000 kilo biltzeko erronka gaindituta**

Sahararen Aldeko III. Euskal Karabana burutu dute pasa den urteko abendutik urtarillaren amaierara arte, eta eskualdean Sahara bizi Tolosaldea Sahararekin elkarteak aurtengo kanpainarekin zuen erronka gainditu egin du. Izan ere, 7.000 kilo elikagai biltzeko asmoa zuten eta kopuru hori gainditu dute.



Kultur Etxeko kartelean ageri da 7.000 kilo gainditu dituztela. I. T.

KZGUNEA ▶

**KZguneko ikastaroetan izen-ematea**

Otsaileko KZguneko ikastaroetan izen emateko epea zabalik dago jadanik. Ikastarorak, beti bezala, Internetenak izango dira. Astelehenetik, hilaren 5etik 16ra izango dira, 11:00etatik 13:00etara. Izena eman nahi duenak 943 653720 telefono zenbakira dei dezake edo bestela KZgunetik pasa.

KIROLAK ▶

**TAKek gaur ekingo dio Gipuzkoako Batelen Ligaxkari**

Trintxerpen ariko dira gaur, eta Pasai San Pedron bihar, 11:00etatik aurrera; kategoria guztietan lehiatuko dira

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur emango zaio hasiera Gipuzkoako Batelen Ligaxkari, eta bertan izango da Tolosaldea Arraun Kluba. Hain zuzen ere, gaur Trintxerpen izango dute lehia, 11:00etan hasita, eta bihar, berriz, Pasai San Pedron lehiatuko dira gaurko ordu berean.

Aurtengoan, TAK present izango da kategoria guztietan. Izan ere, infantil-kadete emakumezkoen 2 batel osatu dituz-



Gipuzkoako Batel Ligaxkan ariko diren TAKeko kideak. NEREA LIZARTZA

te; infantil gizezkoen batel bat; kadete gizezkoen bi batel; jubenil gizezkoen bi batel eta jubenil-senior emakumezkoen bi batel. Lan gogorra egiten dute astean zehar entrenamenduetan, eta gaurtik aurrera ikusiko da ea lehengo urtean bezain emaitza onak lortzen dituzten eskualdekoek. TAKeko ordezkariak zorte ona opa nahi diote kirolari guztiei euren txapelketetan.

**Bigarren urtez Federazioan**

Bigarren urtea dute Tolosaldea Arraun Klubezkoek Euskadiko Arraun Federazioaren barruan, eta aurtengoan ere, Sabino Alijostes izango da klubezko lehendakaria. Hala, aurreko denboraldia, estreinakoia izan zela kontuan hartuta, emaitza oso onak lortu zituzten Tolosaldeko batelek. Horren adibide da jubenil-senior mailako emakumezkoek bai Gipuzkoako Ligaxka, bai eta Euskadiko Batel Txapelketa irabazi egin zituztela.

KULTURA ▶

**Kutxak antolaturiko eskulan tailerrak abian**

ERREDAKZIOA

Kutxa Fundazioak antolatuta, Zuentzart eskulan dendan (Gernikako Arbola, 4) eskulan ikastaroak izango dira. 4 ikastaro dira: larrugintza (24 ordu, ostegunetan 18:00etatik 20:00etara); berziklaketa (48 ordu, asteartea, 18:00etatik 20:00etara); bitxigintza (48 ordu, asteazkenetan 10:00etatik 12:00etara); eskulanak (48 ordu, asteartea, 15:00-17:00).

Otsailean hasiko dira Kutxak finantzaturiko ikastaro hauek, eta izena emateko epea otsailaren lehenengo astea izango da. Kutxan bertan eman ahalko da izena, edo bestela 902 540040 telefono zenbakira deituta.

OSASUNA ▶

**Odol emateak duen garrantzia**

**Erredakzioa** ▶ Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen deiarri erantzunez, urtero bezala, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan pasa den ostiralean odol ateraldia egin zuten. Ikasleak, irakasleak nahiz beste langileak, denera 30 pertsona eman zuten, borondatez, eta askorentzat lehendabiziko aldia zen. Ekintza honen helburua «gazteengana hurbildu, odola ematea erraztu eta ematearen garrantzia azaltzea eta ekintza ezagutaraztea» izan zen. HITZA



iragarki laburrak ▶

**ALOKAIRUAN**

**Etxebizitza.** Lekunberrin 60 m<sup>2</sup>ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukualdea eta 2 logelekin. Deitu 679 20 14 60 zenbakira.

**SALGAI**

**Autoa.** Seat Ibiza. 5 urte. 75.000 kilometro. Interesatuak deitu 665 708 208 zenbakira.  
**Furgoneta.** Volkswagen Eurovan 2.5 TDI. Mahaia eta ohearekin. 665 704484.  
**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta tebuva. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43 telefono zenbakira.

## IRURA ▶ MUSIKA



Ariztimuño, Martin eta Del Barco, atzo, Trinketean, entsegua egiten. I. GARCIA

## Estilo anitzeko kontzertua gaur gauean Trinketean

Joselito El Albahicin, Paul Martin eta Borja Ariztimuño bikotea eta DJ Bull izango dira emanaldia emango dutenak

IMANOL GARCIA

Irurako Trinketea musikaz bustiko da gaur gauean, 23:00etatik aurrera. Estilo anitzeko musikaz eta eskualdeko musikariek egindakoa, gainera. Jose Luis Martin (Joselito El Albahicin, izen artistikoa), Paul Martin eta Borja Ariztimuño bikotea eta DJ Bull ariko dira Trinketeko taula gainean musika eskaintzen. Kontzertu irekia

dela azaltzen dute musikariek. «Publikotik baten batek ere parte hartu nahi badu, gonbidatuta dago», diote.

Kontzertua egiteko ideia Irurako Zaharren Biltokian aurretik egindako emanalditik sortu zen. Orduan Joselito El Albahicin eta Martin eta Ariztimuño bikoteek eman zuten. «Oso ondo atera zen, giro ederra sortu zen eta errepikatzea pentsatu genuen», diote hirurek.

Oraingo honetan DJ Bull gehituko zaie. Borja Blues billabonatarra ere parte hartzekoa da kontzertuan, baina atzo oraindik ez zegoen konfirmaturik. Iruran ez da ohikoa kontzertuak egotea eta Joxe Mari Mendizabal Trinketeko arduradunak dioenez, kontzertu honek «bizi pixka bat emateko balioko du».

Joselito El Albahicin Iruran bizi da eta rumba estiloa garatzen du. Hainbat kontzertu eman ditu eskualdean. Martin anoetarrak eta Ariztimuño tolosarrak osatzen duten bikoteak euskal kantak besten dituzte, bereak eta bertsiok, gitarra eta kaxa flamenkoak lagunduta. Kontzertu honetarako, gainera, Txomin Del Barco anoetarraren laguntza izango dute. Azken honek baxua joko du. Musikari guztiek ere parte hartuko dute hainbat abestietan, *Lau teilatu* eta *Eperak* abestien runba bertsiok eginez. Bere aldetik, DJ Bulek kontzertu-festaren jarraipena ziurtatuko du.

Jende ugari joatea espero dute musikariek, Zaharren Biltokian egindakoan gertatu zen bezala. «Ondo pasatzeko» gogo dute eta entzulegoak ere ordu batzuk gustura egon daitezela beraien helburua.

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

## Elikadurari buruzko hitzaldiak ikastolan

Jesusen Bihotzakoeak bi hitzaldi antolatu dituzte elikadura osasungarriaren inguruan



I. Ibilaldi Neuruko zenbait parte-hartzaile. HITZA

## ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolak elikadura osasungarriari buruzko bi hitzaldi-solasaldi antolatu ditu, Kutxako Gaztekoen Elkarrearen laguntzarekin. *Elikadura osasuntsuaren garrantzia haurtzaroan* izenekoa hilaren 8an izango da, 17:15etik 18:30era, Txermingo ikastolako liburutegian. Bestea, *Obesitatea, anorexia eta bulimia: gure seme-alabak mehatxatzen dituen arriskua* izenekoa, leku eta orduetegi berdinean, hilaren 13an izango da. Hitzaldiak bi hizkuntzetan izango dira.

Ana Elbusto nutrizio-medikuak emango ditu hitzaldiak. Elikadurak osasunean duen garrantzia eta jateko ohiturak sor ditzaketen arazoaren prebentzioaz, mintzatuko da. Bestalde, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak batetik, eta 5. eta 6. mailako ikasleek bestetik, gaia jorratuko dute ikas-

tolan bertan prestakuntza-tailer modura, begirale batzuen laguntzaz.

## I. Kultur Astea

Jesusen Bihotzak aurreko astean antolatutako I. Kultur Asteari amaiera eman zioten igandean I. Ibilaldi Neuruetarekin. 300 lagunek hartu zuten parte bi ibilaldietan eta ikastolako oso gustura azaldu dira. Bestalde, Jesusen Bihotzak «eskerrik beroenak» luzatzen dituzte ekitaldi ezberdinetan parte hartu duten guztiei.

Horrez gain, datorren ikasturteko matrikula epea gertu dagoela eta ikastola ezagutzeko aukera luzatzen dute Jesusen Bihotzakoeak 2 eta 3 urteko haurren gurasoei. Hilaren 7an, 12:30ean, Zizurkilgo eraikina ezagutzeko aukera izango dute, eta hilaren 8an, 12:30ean, Txermingo eraikina ezagutzeko.

## PILOTA ▶

### Pilota partidak gaur, Amasan eta Iruran

Hainbat partida izango dira gaur Amasako pilotalekuan. 11:30ean, joko garbi partida jokatu dute Behar-Zana 2koek (Igor Alejo-Xabier Mitxelena) Zubieta 3ren aurka; 15:30ean, Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketan, benjaminetan Villabona eta Astasu C; alebinetan, Villabona A eta Anoeta A; Villabona C eta Aduna B. Gaur ere, Irurako trinketean 15:30ean Behar-Zanako pilotarien partidak.

## VILLABONA ▶

### Ehiza txikiko bi txapelketa asteburuan

Ehiza txikiko (faisai eta eperria) bi txapelketa egingo dira asteburuan. Gaur, Loatzo elkarrean antolatuta, 14:00etan abiatuko dira ehiztariak eta beraien txakurrak. Bihar, Behar-Zana elkartekoek antolatutakoa izango da. Kasu honetan 09:00etan abiatuko dira ehiztariak. Bi txapelketetan Onddomenditik aterako dira parte-hartzaileak eta bertan izango da amaiera kontrola ere.

0-16 urte

**uzturpe**

ikastetxe bat baino gehiago

udal

haur eskola  
ludoteka  
ikastola

otsailaren 7an  
Ateak Zabalik Ikastolan  
dei lezaburu eta bisita antolatuko dugu

Q

1946ko 2.000ko Nazio Batuen Erakundearen 1946ko 1.000ko Nazio Batuen Erakundearen 1946ko 1.000ko Nazio Batuen Erakundearen

ALEGIA ▶ POLITIKA

ERREDAKZIOA

Gaurko, Alegiko gaztetxean festa berezi bat antolatu dute; *Utzi pakean euskal gazteria* lelopean izango da, 2006eko azaroaren 29an Eneko Elola alegiarra eta Aritz Lopez tolosarraren atxiloteten ondoriozko fidantza ordaintzen laguntzeko. Beraz, festa honetan aterako duten diru guztia horretarako izango da.

Azkenaldian «euskal gazteria pairatzen ari den eraso guztien aurrean, hor gaudela erakutsi beharra dago», diote antolatzaileek. «Euskal gazteria Frantziaren eta Espainiaren indarkeriaren jo-puntua izaten da. Honek ezin du honela jarraitu!». «Batzuk prozesuak aurrera egin dezan konpromisoa erakutsi eta pausoak ematen» dituztela gaineratzen dute, hizketaren beharra azpimarratuz. «Baina beste batzuk betikoarekin jarraitzen dute: egurra ematen euskal gizarteari eta bereziki euskal gazterari».

# Elolaren eta Lopezen aldeko festa, gaur

Gaztetxean egingo dute jaia, joan den azaroan atxilotu zituzten bi gazteen fidantzak ordaintzen laguntzeko

EGITARAUA ▶

- 14:00. Bazkaria Gaztetxean: 20 euroren truke. Ondoren, herriko bertsolarien saioa.
  - 18:00. Manifestazioa herrian zehar. Leloa: *Utzi pakean euskal gazteria*.
  - 20:00. Zahagi ardoa Gaztetxean.
  - 22:30. Izeba Pilarren ilobak eta Skamatxin taldeen kontzertuak. Ondoren, DJ bat izango da gaua bukatu arte.
- ▶ Kontzertuen prezioa 5 eurokoa izango da.



Elola eta Lopezen aldeko hainbat mobilizazio egin zituzten atxiloteten ondoren. Irudian Triangulon egindako manifestazioetako bat. N. URBIZU

ZUHAITZ IGLESIAS ▶ ANTOLATZAILEETAKO BAT

## «Badakigu ez ditugula 18.000 euro bilduko, baina lortutakoa familiari laguntza emateko izango da»

**Nerea Urbizu** ▶ Zuhaitz Iglesias alegiarra izan da egun hau antolatzen aritu denetakoa bat. **Zenbateko fidantza ordaindu behar izan zuten Eneko Elolak eta Aritz Lopezek?** 9.000 eurokoa bakoitzak. Badakigu ez ditugula 18.000 euro bilduko, inolaz ere, baina lortutako diru guztia familiakoei laguntza emateko izango da. **Zaila al da horrelako egun bat antolatzea?**

Jendearekin hitz egin behar da, telefonoz egun osoan zintzilik... Dena dela, musika taldeak eskualde ingurukoak dira eta horrek erraztu egiten du lana. Hauei kontzertua egitearen arrazoiak eman eta musitruk etorriko dira gaur jotzera. Bazkaria doan izango dute, besterik ez. Dena antolatu hiru bat lagun aritu gara. **Beraz, ateratako diru guztia fidantza ordaintzeko.**

Edaria ordaindu beharko dugu: bestela, bazkariko dirua, sarrerakoa eta barran lortutako guztia fidantzak ordaintzen laguntzeko. Gasturik ez dugu izango ia. **Ondo ateraz gero berriro egingo duzue?** Ez dugu ezer komentatu oraindik, hau lehenengo aldia da. Balorazioa egingo dugu hurrengo astean eta ondo ateratzen bada, zergatik ez? ◀



HITZA

ALEGIA ▶



Minbizia garai detektatzea garrantzitsua da. HITZA

## Bularreko minbiziaren prebentziorako hitzaldia

Kultur Etxean izango da Lourdes Aritziturrik 17:00etan emango duen mintzaldia

ERREDAKZIOA

Bularreko minbizia garai detektatzeari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta honi buruzko informazioa izatea funtsezkoa dela kontuan izanik, Alegiko Kultur Etxean hitzaldi bat antolatu du Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Asteazkenean izango da 17:00etan. Hitzalaria Lourdes Aritziturri medikua izango da. Informazioa nahi duen edozein dago bertara gonbidatuta.

Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak bideratuko duen hitzaldian bularreko minbiziaren arrazoi azterketaz, tratamenduaz eta prebentzioaz hitz egingo dute, besteak beste.

TOLOSA ▶ AHT



## Kultur Etxeko jardunaldietan informazioa

**N. Urbizu** ▶ AHTren inguruko informazioa jasotzeko jardunaldiak «oso ondo» doaz, esan dutenez. Hala ere, asteazkenean zehar bertan dituzten liburu eta dokumentazioko liburu bat desagertu egin zen: *Plan territorial sectorial de la red ferroviaria vasca (PTS)*. Kultur Etxeko atekari itxita egonda handik liburu desagertzea ez dute ulertzen AHT Gelditu! Elkarlaneanekoek. Udaltzaingoan lapurretaren salaketa jarri dute. I. T.

# AITZOL

UDAL EUSKALTEGIA

## Matrikula zabalik

### otsailaren 5etik 9ra

**ORDUTEGIA: 09:00- 14:00**

**Dauden taldeetan sartzeko**

Helbidea: Gorosabel 34-B 3.a  
Tel.: 943 651006 – 943 652343 Faxa: 943 651244  
posta elektronikoa: aitzolue@tolosakoudala.net

## SANTA AGEDA BEZPERA ▶

## EGITARAUA ▶ HERRIZ HERRI

## ADUNA

15:30. Ordu horretan bildu baina 16:00etan aterako dira plazatik herritarrek.

## ALEGIA

17:00. Larraitz auzoko Kurpil kafetegiaren ondotik abiatuko da Txintxarri abesbatza.

## ALKIZA

19:00. Kultur Etxetik abiatuko da abesbatza taldea.

## ANOETA

10:00. Ikastolatik LH eta DBHkoak aterako dira, eta 10:45ean HHkoak Alkartasuna biltokitik.

## ASTEASU

09:00. Pello Errota eskolakoak herriko plazan elkartuko dira.

12:00. Loatzo musika eskolakoak plazan bilduko dira.

## IBARRA

09:30. Hauspoa Kultur elkarteak antolatuta San Bartolome plazatik abiatuko da taldea ikastola aldetik.

**Eguedian.** Bazkaria Sendi-Ekintzan.

17:00. Plazatik egutera aldera joango da taldea.

## IKAZTEGIETA

15:00. Toki Alai tabernan bilduko da taldea eta baserriz baseri ariko dira. Iluntzerako plazara bueltatuko dira. Bilduriko dirua euskal preso eta errefuxiatuei bideratuko diete.

## IRURA

10:00. Plazan elkartuko dira

ikastolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak.

## LEITZA

**Goizean.** Ume eta gaztekoak herriko etxeetan ibiliko dira eskean «agiragirando» kantatuz lagun koadrilaka.

18:00. Plazan elkartuko dira nahi duten guztiak, trikitilariekin herrian barrena kopia kantari ibiltzeko.

**Ondoren.** Arratsaldekoa, Karrapean kultur taldearen eskutik. Txistulariak eta Jaione Olazabalen musika ere izango da bertan.

## TOLOSA

16:00. Olarraingo taldea zentrolik aterako da. Ordu berean elkartuko dira Amarotz Auzo elkartekoak.

18:30. Ero-Etxe elkartearen elkartuko dira bertako partaideak meriendatxo egiteko. Ondoren, kantari abiatuko dira Tolosako kaleetan.

18:45. Gure Txokoa elkarteak kideak elkartuko dira eta berdura plazara abiatuko dira kantuan aritzeko. Ondoren Tolosako kaleetan barna jarraituko dute.

## VILLABONA

15:30. Jesusen Bihotzako ikasleak, irakasleak eta gurasoak plazan elkartuko dira.

## ZIZURKIL

16:00. Plazan elkartuko dira San Millan eskolako haurrak eta gurasoak ondoren kaleetan barna kantuan aritzeko.

## IBARRA ▶

## Haurren jaiarekin amaituko da Kultur Astea

Uzturpe ikastolako Kultur Asteak gaur izango du amaiera. Astean zehar arlo ezberdinetako gaiak landu ondoren, haurren tartea izango da gaurkoan. Hala, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara gazte-lua, puzgarriak, txirrista eta euskarroka izango dira besteak beste, Belabieta kiroldegian. Haur festa 0 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago nagusiki.

## IBARRA ▶

## Gasteizen jokatu du gaur Ibarrek

Ibarra areto futbol taldeak Gasteizko Carnicerias Saenz taldearen aurka jokatu du gaur 18:30ean Hegoalde kiroldegian. Bertara joateko autobusa 16:00etan aterako da Euskadiko Kutxatik.

# Ageda zenaren omenez

Kopla zaharrez beteko dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko kaleak bihar herritarrek, Santa Ageda bezpera egunean egin ohi den eskean

## MADDI SOROA

Zorion, etxe hontako denoi! Oles egitera gatoz, aterik ate ohitura zaharra aurten berritzeko asmoz... Hala dio baserriz baseri, etxerik etxe edota kalez kale Santa Ageda bezperan kantuan ateratzen denak. Nor zen, ordea, Ageda?

Usadioak diotenaren arabera, Ageda III. mendean jaio zen Siziliako Katania herrian. Birgina eta martiria zen, eta oso emakume ederra. Quintianus senatoriak bere jabe izan nahi zuen, baina Agedak ukatu egin zuen, Jesukristorekin konpromezua hartua baitzuen. Quintianusek, mendeku gisa, Ageda torturatzeko agindua eman zuen eta bularrak moztu zizkionten.

Ohiturak dioenez, Ageda hil eta urtebetera, 205. urtean, Etna sumendiak erupzioa izan zuen eta Kataniako herritarrek laba geratzea lortu zuten. Harezkerok, herri horretako eta inguruetakoa zaindaria da, eta suaren, tximisten eta sumendien eraginak prebenitzeko erregutzen zaio. Agedarengana zuzentzen dira bularreko gaitzak, erditze zailak eta edoskitzeekin arazoak dituztenak ere. Orokorrean emakumeen zaindaria kontsideratzen da eta Euskal Herrian erizainen patroia izateaz gain, sendagile-tzat dute.

## Santa Ageda Eskea

Otsailaren 5a da Santa Agedak urteko egutegian tokia duen eguna. Euskal Herrian, ordea, bezperan ospatzeko ohitura dago. Baserritar arropak soinean jantzi eta makila eskuan harturik etxex etxe edota kalez kale klopia zaharrak kantatzen dira Agedaren heriotz eta martiriaren ohorez.

Tradizioaren arabera, soldaduska egitera zihoazen gazteak (kintoak) omen ziren taldeka etxex etxe dirua eta jakiak biltzen zituztenak, ondoren bazkari edo meriendak egiteko. Gaur egun, ordea, aldatu egin dira gauzak eta adin guztietako jendea biltzen da klopia zaharrak kantatzeko eta lagunartean une alaiak igarotzeko.



laz, zizurkilen kantuan ateratako haurren irudia. NEREA URBIZU

## Leitzan, bertsoak Agedari

Santa Ageda bezperan herri gehienetan ezagun diren klopia zaharrak kantatzen dituzte Agedaren ohorez. Leitzan, ordea, bat bateko bertsoak kantatuko dituzte aurten lehenengo, bertso eskolakoak bat batean arituko baitira herriko kaleetan zehar.

Idea nondik sortu zenaren harira zera azaldu du Unai Elizasak «bertso eskolak aurretik bazuen asmoa baina orduan ez zegoen kultur talde-

rik, baina orain taldea sortu dugunez, elkarrekin ariko gara».

Elizasu beraz agian, Diego Riaño eta Migel Mari Elosegari ariko dira bertsoetan, besteak beste. Elizasuk esan bezala, ordea «tabernetan jende gehiago izanen da eta bakoitzarekin sartzeko aukera gehiago izanen dugu».

Umorea eta giro ona ez dira faltako beraz Santa Ageda bezperako ospakizunean. ◀

## TELEFONOAK ▶

## Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

## Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ lurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

**ARAMBURU**  
Salgai (Tolosa).  
Pisua 4 lugelekin Araba etorbidean.  
**Alokatze (Tolosa).** Garajeak.  
Araba etorbidean, lurre auzoan eta Antonio Maria Labayen kalean.  
**Salgai (Tolosa).** Belardenda, Kale Nagusian, negozioa martxan.  
**Salgai (Tolosa).** lurre auzoan.  
Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal txikia. Oso modu onean.  
**Salgai (Tolosa).** Lokalak Enperadore kalean eta Kale Nagusian.  
**Salgai.** Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.  
**Salgai (Tolosa).**  
Garajeak. Leidor azpian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

ARESO ▶ INAUTERIAK

# Areson ere, ikasleak izan dira goiztiarrenak inauteriei ongietorria egitean

Atzo 15:00etan herrian bueltaxka egin zuten mozorrotuta eskolako ikasleek eta jolasekin eta txokolatadarekin ospatu zuten inauterien etorrera

NAIARA GARZIA

Leitzakoei lekukoa hartuz, Aresoko inauteriak iritsi dira eta bertako eskolako umeek hauek atzo ospatu zituzten. Horretarako denak mozorrotu eta herrian buelta eman zuten, traktore bat aurrean zutela, nahiz eta plaza ingurua eta herria bera ere obrez josita egon.

Herrian bueltaxka egin ondoren txikienentzat jolas bat antolatu zuten. Altxorren bila delakoa eta hau amaitu ondoren txokolatada egin zuten pozarren.

Herriko eskolakoak ez ziren inauteriei atzo ongi etorria eman zieten bakarrik, gauean, 21:30ean, herritarrek afaria antolatu baitzuten.

Hala ere, gaur hasiko dira ofizialki 2007. urteko inauteriak, 09:00etako gosariarekin. On-



Umeen kalejira. N. GARZIA

doren, urteak joan ahala Areson ere mantentzen den ohitura bati eutsiko diote aurten ere: eskea, izan ere, bai gaur, baita bihar ere, eskean ibiliko dira.

baserrien txanda izango da gaur, eta herriarena, berriz, bihar.

Honetaz gain, inauteriak ospatzeko aresoarrak ere bazkal-

tzeo eta afaltzeko elkartuko dira asteburuan zehar eta musikarik ez da faltako herriko plazan. Bihar, Jaione eta Jon 19:00etan ariko dira.

LEITZA ▶

**Aurrera futbol taldeak Ardoyen aurka jokatu du gaur, Zizurren**

ERREDAKZIOA

Gaur iluntzean Ardoy taldearen aurka jokatu du Aurrera taldeak, joan den asteburuko etenaldia eta gero, izan ere, Beriainen aurka jokatu behar bazuen ere, partida bertan behera uztea erabaki zuten. Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «elur-rerengatik ez zen jokatu eta aurrerago jokatu beharko dugu». Aurreko ligan Aurrerak Ardoy taldearen aurka jokatu du bi partidak irabazi zituen arren, «tope-topean» joan beharko dutela esan dute arduradunek, «Dani Alvarez eta Iñigo de Carlos zigortuta daude eta honetaz gain beste baja batzuk ere badauzkagu. Gaztetatik bizpahiru jokalaririk hartu beharko ditugu».

LEITZA ▶

**Martin Scorsese 'Infiltrados' filma, izango da ikusgai bihar**

ERREDAKZIOA

Martin Scorsese zuzendari italiarrak 2006. urtean estreinatutako *Infiltrados* filma botako dute asteburu honetan zinemara, ohiko orduan.

Scorsese film honekin mafia-zinemara murgiltzen da, eta horretarako hagitx eza-gunak diren aktoreez inguratu da: Leonardo DiCaprio, Matt Damon, Jack Nicholson, Alec Baldwin, Mark Wahlberg... Filma Bostonen kokatzen da eta polizia eta *gangs* ter istorioa kontatzen du.

LEITZA ▶ ELURRA

## Elurra garbitzeko lanean

N. Garzia ▶ Joan den astean egindako elurrak ez du urtzeko asmorik antza. Egun hauetako izotzak ere ez du batere laguntzen, eta herrian ere elur dezente dago oraindik. Horrengatik, asteazkenean plaza eta honen inguruak garbitzen ibili ziren, indusmakina baten laguntzarekin. N. G.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko otsailaren 3a, larunbata ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena 7 hotzena 5 BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. Kudeatzailea. Jon Mujika. Publizitateak. 661 678818. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
 Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. Vilabona-Aitz. 687 410022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
 Anoeta. 687 410022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info. Ibarra. 687 410032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
 Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. Leitzalde. 687 410118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balañarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** 902 82 02 01  
 (balantza argizteko, harpidetun egiteko...)

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Eneko Elola alegitarra atxilotu zuteneko fidantza ordaintzen laguntzeko jaiak egingo dute. Bazkariaren ondoren herriko bertsolariak izango dira, manifestazioa herrian, zahagi sagardoa eta 22:30ean Izeba Pilarren iobak eta Skamatxin.

**Ibarra.** 0 eta 12 urte bitarteko haurren festa Belabietako kiroldegian: gaztelua, puzgarriak, txirrista, euskaraokoa... 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etik 18:00etara. 18:00etan, txokolatada plazan. Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen barruan.

**Tolosa.** Gerontologikoaren aldeko plataformak 11:30ean asanblea informatiboa egingo du Euskal Herria plazako gerontologikoan.

**Tolosa.** Mendi martxa Triangulotik hasita egingo dute 09:00etan eta AHTk kalteturiko inguruetara joango dira. 12:30ean, berriz Triangulotik hasita manifestazioa egingo dute, *Jendartea eraldatu dezagun!* lelopean.

**Tolosa.** *Katuska* zartzuela izango da ikusgai 20:00etan, Leidor aretoan.

**Tolosa.** Abiba Diskojaia izango da Beotibar pilotalekuan 21:00etatik 05:00etara. Sarrera doan. Musika, zozketak... izango dira dantzatoki mugikor honetan.

**Tolosa.** San Blas auzoko jaiak: 11:00etan meza eta produktu bedeinkazioa, 12:00etan haur jolasak, 12:30ean toka txapelketa auzo eta elkarteentzat, 16:00tan toka txapelketa probintziala eta 18:00etan trikitixa Elustondo anaiekin.

**Tolosa.** Ehiza txapelketa izango da Tolosako ehiza elkarteak antolatuta. Izen-ematea, Monteskuo aterpean 13:30etik 14:00etara.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Lekunberri.** Azpiz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.  
**Tolosa.** Ollarrea, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Jendea San Blas erroskilak erosten. I. GARCIA



Jende ugari bildu zen auzoan tabernaren bueltan. I. GARCIA

# Erroskilaren eguna

**TOLOSA ▶** Atzo hasi ziren San Blas auzoko jaiak musika izan zelarik nagusi; gaur izango da festen egun handia ekitaldiz beteriko egitarau oparoarekin



Ederki igaro zuten gazteboenek disko festaren musikarekin. I. GARCIA

**ERREDAKZIOA**

**A**tzo hasi ziren San Blas jaiak izen bera daraman Tolosako auzoan. Hala, atzokoan musika izan zen protagonista, eta batez ere gazteak bildu ziren arratsaldetik gauer arte antolatutako disko festan.

San Blas Egun handia, dena den, gaur izango da, eta horretarako ederki atondua dago auzoa atzotik. Hasteko, 11:00etan Meza Nagusia izango da ermitan, eta bertako produktuen bedeinkapena egin ahal izateko baliatuko dute herriar ugari. Elizkizunaren ostean, ume jolasak izango dira eta 12:30ean eta 16:00etan toka lehiaketa egingo dute auzoentzat eta elkarteentzat lehendabizi eta probintziakoentzat ondoren. Halaber, goizean eta arratsaldean San Blas erroskilak dastatzeko aukera izango da urtero moduan. Arratsalde-iluntze partean, trikiti doinuak izango dira protagonista egunari amaiera emateko Elustondo anai-arrebekin.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Tere Albizu (Tolosa).**  
 Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Ander Mujika (Abaltzisketa).**  
 Gaur 2 urte. Muxu pila 1 denon partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Iker Gurrutxaga (Tolosa).**  
 Gaur 10 urte. Aita, ama eta aitonen partetik zorionak.



**URTE ASKOAN**  
**Egoitz.** Beanduxeo, baina hemen gaude. Maitasun osoz, muxu bat familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
 agurren tartea